



2001

Jardueren
Memoria

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco



Jardueren Memoria

2001

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

Aurkezpena

Esku artean duzuen memoriak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2001. urtean egin dituen jarduerak batu ditu. Ekitaldi horretan elkarrizketa-maila bizia eta arina izan da, eta, horri esker, erakundea finkatu egin da.

Gaur egun, baieztatu ahal dut Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea ezaugarri horiek dituen aholkularitza-organo batek behar duen heldutasunera iritsia dela.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak gizarte zibilaren adierazpena izatera iritsi gura du, eta, ildo horretan, urrats garrantzitsuak egin ditugu 2001.ean. Hainbat hiletan prestatzen eta kontsultatzen jardun ostean, Batzordeak erabaki du bere ekimenez behar egitea euskal gizartearentzat interes handikoak diren bost arlotan: EBko eta EAEko gizarte- eta enplegu-politiketan, ingurumenezko politika publikoen azterketan, Internet aroan dauden lanbidezko profil berrietan, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten tal-deei arreta egiten, eta etxebizitzaren arazoan.

Era berean, Europako politiketan modu eraginkorrean lan egitea erabaki dugu: lankidetzan jardungo dugu, Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin batera, interesgarriak diren ekintza, eskualdeen arteko programa eta lankidetzaren proiektu guztietan.

Eremu zabal oso bat dugu aurrean ikerketarako eta behar egiteko 2002. urtean; urte dinamikoa izango da hau gure erakundearentzat.

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Lehendakaria

Ziurtagiria

Nik, Manuel Aranburu Olaetxeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusiak, ondokoa

ZIURTATU DUT:

Lehena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2002ko apirilak 12an egindako bilkura arruntean, besteak beste honako erabaki hau hartu duela:

"Bildutako kide guztien adostasunez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardueren Memoria, 2001eko ekitaldiari dagokiona, onestea".

Bigarren, argitalpen honek erabaki horretan aipaturiko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik jasotzen duela.

Eta, ondoren egokiak izateko, hau sinatzen dut Bilbon 2002ko apirilak 12an.

MANUEL ARANBURU OLAETXEA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia

Aurkibidea

I. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA	9
• Historia	10
• Zer da?	10
• Nortzuk osatzen dute?	11
• Bere zereginak	11
II. KAPITULUA.–BATZORDEAREN LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EKITALDIA	13
• Batzordearen kontsultara jarritako eta irizpena emandako arazoak	14
• EA Eren egoera sozio-ekonomikoari buruzko txostena lantzea	15
III. KAPITULUA.–ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK ETA JARDUERAK	17
• Bilerak, bistak eta erakundeen jarduerak	18
IV. KAPITULUA.–GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA	26
• Aurrekontua	27
V. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN DOKUMENTAZIO ZERBITZUA ETA KANPOKO KOMUNIKAZIOA	28
• Korporazioaren irudia	29
• Web-orrialdea	29
• Dokumentazio-zebitzua	31
• Liburutegia	31
• Argitalpenak	32
• Komunikabideak	33
VI. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI APLIKA DAKIOKEEN LEGERIA	35

Eranskinak

I. ERANSKINA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEEN ETA BATZORDEEN OSAERA	39
II. ERANSKINA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEK ETA BATZORDEEK EGINDAKO BILKURAK	48
III. ERANSKINA.–AUDITORETZA TXOSTENA	57
IV. ERANSKINA.–PRENTSA-OHARRAK	59

I

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

HISTORIA

Oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak lehenengo mundu gerra amaitu osteko lehen urteetakoak dira. 1919an Lanaren Nazioarteko Bureau-a sortu zen; nazioarteko biltzar horretan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartu zuten, denen artean lan-baldintzak hobetuko zituen nazioarteko legeria egiteko.

Hortik abiatuta, lehenengo ituntze-tresnak sortu ziren Europan; horiek izan ziren oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aurrekariak. Lehenengo erakundea Frantzia sortu zen, 1925ean, eta, geroago, antzekoak eratu ziren Europako beste herrietan, bereziki, bigarren mundu gerra amaitu ostean.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak, bere organo gorenaren artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea egin zuen. Funtsean, bateratuak dira denak, euren izaeran eta zereginetan: aholkularitza-organoa da, eta bere helburua da gizarte- eta ekonomia-interes askotako ordezkariak parte hartzea gobernuen politika ekonomikoan, eta, aldi berean, aukera ematea euren artean elkarrizketan eta lankidetzan jarduteko.

Era berean, Kontseiluak ez du jarrera pasiborik; ostera, berezko ekimena du gobernuek aintzat hartu beharko dituzten iradokizunak edo ebazpenak egiteko. Aholkularitza-organoa hori autonomoa da, ez da Gobernuaren menpekoa; eta bere txostenak, lotesleak ez izan arren, askotan aginduzkoak dira, eta beti dira aintzat hartzeko moduko iritziak.

ZER DA EGB?

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aholkularitza-erakundea da, eta bere helburua hainbat ekonomia-

* 4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, gero beste bi legek (ekainaren 30eko 15/1994 Legeak eta ekainaren 27ko 9/1997 Legeak) aldarazi dutenak, sortu zuen.

eta gizarte-arduradunek Euskal Herriko politika ekonomikoan parte hartzea da. Kontseiluak berezko nortasun juridikoa du, EAeko Administrazioak duena ez bezalakoa, eta erabateko gaitasuna eta askatasuna ditu bere zereginak betetzeko.

Ekonomia eta finantzazko autonomiaren irizpidetik, Kontseiluak bere aurrekontua onartzen eta betearazten du; aurrekontua finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitzen dizkioten kopuruak erabiltzen ditu.

Kontseiluak Bilbon du egoitza; eta, legez 1984an sortu zen arren, ez zen abian jarri 1997ra arte.

NORK OSATZEN DU?

- Kontseilua hogeita hamabi lagunek osatzen dute, eta ondoko eran dago eraturuta:

1. Zortzi kontseilari, sindikatuen erakunde eta konfederazio nagusien ordezkarietan
2. Zortzi kontseilari, enpresaritza-konfederazioen ordezkarietan.
3. Zortzi kontseilari, honako hauen ordezkarietan: merkataritza-, industria- eta itsasketa-ganberak, aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazaritza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
4. Zortzi aditu, kualifikazio, eskarmentu eta askatasun handikoak.

- Kontseiluak lehendakaria eta idazkari orokorra du, eta, gainera, teknika-, administrazio-eta dokumentazio-zerbitzuak ditu.

- Kontseiluko kideak lau urteko denboraldirako izendatzen dituzte, berriro aukeratuta izateko kalterik gabe.

- Erabakiak hartzeko organo gorena osoko bilkura da. Bere zereginen artean, besteak beste, lehendakariari proposatzen dio lehendakari kargua bete behar duen laguna nor den, idazkari orokorra izendatzen du, lan-batzordeak sortu eta ezabatzen ditu, eta Erakundearen aurrekontuak, urteko txosten sozioekonomikoa eta jarduerena, eta batzordeek bidalitako irizpenen, ebazpenen eta txostenen aurreproiektuak onartzen ditu.

BERE ZEREGINAK

- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten lege-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearena izan ezik.

- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten dekretu-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Jaurlearitzaren iritziz, garrantzi berezia badute.

- Jaurlaritzari galderak egingo dizkio, bere eskumeneko gaien gainean.
- Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egingo ditu, bere ekimenez edota Jaur-laritzak eskatuta, aurreko ataletan aipatutako esparruetan.
 - Legebiltzarrek egiten dituen kontsultei erantzuna emango die.
 - Parte hartuko du Jaurlaritzak egingo duen planean, Autonomia Erkidegoko arlo publikoko jarduera ekonomikoaren gainekoan.
 - Urtero txosten bat egingo du, eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko die; hor, EAEko ekonomia- eta gizarte-egoeraz duen iritzia azalduko du.

III

Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

Indarreko Legean esaten duenarekin bat egonik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2001. urtean zehar bere kontsultara jarritako arazoei buruzko zazpi irizpen eman ditu. Halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari EAEko ekonomia eta gizarte egoeraren gaineko iritziak azaltzen dituen urteroko memoria igorri die.

14

BATZORDEAREN KONTSULTARA JARRITAKO ETA IRIZPENA EMANDAKO ARAZOAK

2001. urtean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak honako irizpen hauek eman ditu:

- 1/2001 IRIZPENA, Etxebizitzaren Antolamenduaren gaineko Legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- 2/2001 IRIZPENA, prestakuntzako txandakako praktiken programa arautzen duen Dekretuaren Proiektuari buruzkoa.
- 3/2001 IRIZPENA, ondoko proiektuak garatzeko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa: laneratze-txertatze metodologia erabiltzen duten prestakuntzako estrategien bidez, langabezian dauden lagunak lan merkatuan sartzeko aukerak hobetu nahi dituzten proiektuak.
- 4/2001 IRIZPENA, Uraren Euskal Administrazioa arautzen duen Legearen aurreproiektuari buruzkoa.
- 5/2001 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoan EQUAL erkidegoko ekimenari dagozkion laguntzetara iristeko lehen deialdia arautzen duen Agindu Proiektuari buruzkoa.

EAEko MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA LANTZEA

Erakunde honek egiten duen Euskal Autonomia Erkidegoaren laugarren memoria sozio-ekonomikoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2001eko irailaren 28an egindako ohiko bilkuran. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, urteroko memoria bat egin eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari emateko legezko manua betetzen da

Memoria honetan, urte horretako azaroan formato berrian argitaratua *Euskal Autonomia Erkidegoaren 2000. urteko memoria sozio-ekonomikoa* izenburuarekin, lan deskribatzaile garrantzitsua egiten da, urteko ekonomia eta gizarte gertaera nabarmenak laburbilduz, eta Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen egoerari buruzko gizarte eta ekonomia agente nagusiek elkar banatutako ikuspegia eskainiz. Memorian EGBk ordezkatzan dituen talde eta erakunde ezberdinek ados jarritako eta kapitulu deskribatzaileak aurretik aurkeztutako ondorioak, iritziak eta proposamenak azaltzen dira

Aurreko edizioan bezala, 2000ko Memoria Sozio-ekonomiko hau oinarritzko bost zatitan egituratu da, Laburpenaren eta Ohar Orokorren atalaz gain, eta horietan berritasun batzuk daude.



Memoria Sozioekonomikoa komunikabideen aurrean aurkezteko ekitaldia.

Lehen zatian 2000. urtean EAE ekonomia eta lan egoeran nola moldatu den azaltzen da. Berrikuntza gisa, edizio honetan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berrien eraginei leporatzen zaizkion ondorio ekonomikoak azertu dira, Ikerketa eta Kalitate edo oinarritzko Azpiegituraren idazki-zatiak gehituz.

Bigarren zatian biztanleriaren bizi-baldintzak eta bere ongizatearen mailari buruz ari da. Osasun, heziketa, etxebizitza, ingurumena, kultura eta kontsumo egoeren ezaguerarekin batera, emakumearen egoeraren bilakabidea ere aztertzen da. Gizarte-egoera ahuleko talde batzuen bizitza-baldintzei dagokienez, adierazi beharra dago memoria honetan lehen aldiz aztertu dela Euskal Autonomia Erki-degoan minusbaliotasuna duten lagunen egoera.

Hirugarren zatian gizarte-babesaren egoera, gizarteko ezberdintasun edo baztertze egoerak eta arlo horretara zuzendutako baliabideak ikertzen dira.

Laugarren zatian EBrekin dauden harremanak, eta egitura-politikan eta erkide-go-kohesioan dagoen partaidetza deskribatzen dira.

Aurreko memoriaren antzera, *azken atalean*, EAEn aurten izan den lege-jardueraz zerrendatu da.

Irakurleak, sarean eskuragarri duen Memoria Sozio-ekonomiko honetan, bate-tik, datuak aurkituko ditu, Euskadiko errealitate sozio-ekonomikoaren argazkiak bailiran; eta, bestetik, erabakiaren puntu komunak ere aurkituko ditu, gure erkide-goko agenterik eta erakunderik garrantzitsuenek gizarteko arazo nagusiei buruz egin duten hausnarketa bateratuaren ondoriozkoak.

III

Erakunde arteko harremanak eta jarduerak

Erakunde arteko harremanak eta jarduerak

BILERAK, BISITAK ETA ERAKUNDEEN JARDUERAK

Ordezkaritza duten erakundeek eta elkarteek estutu dute elkarren arteko harremana Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen barruan. Lanbatzordeez gainera, sailburuek sarritan parte hartu dute informazio- eta prestakuntza-izaerako bilkuretan. Era berean, sakondu egin da komunikazio-arloan eta Batzordeko lehendakariak batzordekide bakoitzarekin duen elkarrizketan.

Erakundeen ordezkapenari dagokionez, Batzordeko karguak hainbat ekitalditarra, biltzarretara, mintegitara eta mahai-ingurutara joan dira, EAEn jarduten duten erakundeekin eta elkarteekin. Honako toki hauetara joan dela nabarmendu behar da: ASLE, CEBEK eta ADEGIren Batzar Nagusiak; Lehendakaritzak antolatutako ekitaldiak; Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak; Kooperatibismoaren Mundu Eguna; Emakume Enpresaburuen eta Zuzendarien Nazioarteko I. Biltzarra; Gizarte Ekonomiaren gaineko Nazioarteko I. Mintegia, Enplegu Sorgune Berriak eta Tokiko Garapena; "LifeLong learning. Ikasketa bizitza guztian zehar"; ELKARGIren enpresaritza-topaketak; "2000ko Txosten Ekonomikoaren Aurkezpena. ETEak Bizkaian"; ELAren 90. urteurrena; CC.OOren urteurrena, etab.

Era berean, EGBko langile teknikoek, urte osoan, hainbat jardunaldi, mintegi, ikastaro eta eztabaida-gunetan hartu dute parte, eta horiek interesgarriak izan dira eurek erakundearen egindako jarduerarako. Atal horretan nabarmendu behar dugu UIMPren udako ikastaro honetara joan dela: "Espainiako gizarte-, ekonomia- eta lan-egoera EBko testuinguruan".

2001. urtean, Euskadiko EGBko lehendakariak eta idazkari nagusiak elkarrizketa izan dute Eusko Jaurlaritzaren egoitzan honako sailburu hauekin: 2001-09-13an, Javier Balza Herrizaingoko sailburuarekin; 2001-09-27an, Álvaro Amann Garraio eta Herri Laneko sailburuarekin; 2001-11-29an, Miren Azkarate Kultura sailburuarekin; eta 2001-12-27an, Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarekin..

Euskadiko EGBan ere erakundearen hainbat bisita eta agerpen izan dira 2001. urtean, nola gure erkidegokoak hala kanpokoak. Nabarmenenak aipatutako ditugu:



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburua den Patxi Ormazabal bere taldearekin batera, agerpena egin zuenean.

- **2001-03-05 – Honako honen agerpena:**

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumeneko sailburua den Patxi Ormazabal jauna; Lurralde Antolamendu eta Etxebizitzako sailburuordea den Miguel Angel Delgado jauna; Lurralde Antolamenduko zuzendaria den Juan Ignacio Izeta jauna; eta Lurralde Antolamendu Zerbitzuko burua den Agurtzane Zangitu andrea.

Etxebizitza Saileko arduradunek EAEko Hirigintzako Legearen Aurreproiektuko puntu nagusiak azaldu dituzte Ekonomia Garapeneko Batzordearen aurrean. Aurreproiektuan sartutako araudiak orain indarrean dagoen araudiarekiko dituen berrikuntzak azaldu dituzte, eta EGBko kideen galderak erantzun dituzte.

- **2001-03-28 – Honako honen bisita:**

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako sailburua den Sabin Intxaurrega jauna.



Frantziako ordezkari bat EGBn izan zen 2001eko irailaren 26an. Ekitaldi horretara, Justizia, Lan eta Gizarte Arazoetako sailburu den Joseba Azkarraga joan zen.

Euskadiko EGBko lehendakaria den Rafael Puntonet jaunarekin lan-bilera izan zuen.

- **2001-04-06 - Honako honen agerpena:**

Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko sailburuordea den José María Iruarrizaga Artaraz jauna; Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria den Félix Ayarza Palma jauna; eta Eskualdeko Politika Zerbitzuko burua den José Antonio Varela Alonso jauna.

Ekonomia Saileko arduradunek Ekonomia Garapeneko Batzordearen aurrean azaldu dituzte 2000-2006 denboraldian gure Autonomia Erkidegoko 2. helburuaren esparruan izan diren egiturazko esku-hartzeen ildo nagusiak, Sailak prestatzen diharduen DOCUP-en Programa Osagarriaren egitura eta edukia, eta indarrean dagoen bitartean programazioa betearazpena eta jarraipena.

- **2001-09-26 – Honako honen bisita:**

Frantziako delegazioa; Midi-Pyrénésko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria den M. Jean Louis Chauzy izan da buru, eta, harekin batera, bere erakundeko kideak eta sailburuak izan dira, eskualde horretako Merkataritza Ganberako lehendakaria eta beste ardu-

radun batzuk eta Frantziako Merkataritzako sailburua ere bai. Ekitaldira Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Gaietako sailburua den Joseba Azkarraga jauna ere joan da.

Lan-bilkura egin dute, eta informazioa trukatu dute gure eskualde bietako errealitate ekonomikoiez, eskualdeen arteko trukeak eta lankidetzak sustatzeko egin litezkeen ekimenez, euren unibertsitate-egiturez eta euren agente ekonomikoiez.

- **2001-04-04 – Honako honen bisita:**

Dominikar Errepublikako ordezkariak; honako hauek osatu dute: Dominikar Errepublikako Laneko estatu-idazkaria den Milton Ray Guevara jauna; COPARDOMeko lehendakaria den Fabio Herrera Roa jauna; COPARDOMeko zuzendari exekutiboa (idazkari nagusia) den Aquiles Rodríguez Salcedo jauna; eta Grisolia&Bobadillako abokatua den Juan Miguel Grisolia jauna.

Dominikar Errepublikako ordezkariak interes bizia erakutsi zuen gure erkidegoan dauden gizarte-partaidetzako erakundeen jardunbideaz eta izaeraz. Izan ere, Dominikar Errepublikako Gobernu lege bat egiten ari da,



Dominikar Errepublikako ordezkariak EGBri egindako bisitan.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortzeko, eta Euskadiko EGB hartu du eredu gisa hura egiteko.

- **2001-11-26 – Honako honen bisita:**

Martine CHAILLAT andrea, Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Programen arduraduna.

Lan-bilkura, Euskadiko EGBk Arku Atlantikoko bilkuretan parte hartzeari buruzkoa.

- **200-12-15 - Bisita:**

Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. Bisitan, honako hauek izan ziren: lehendakaria den Nekane Alzelai Uliondo andrea (EA); lehendakariordea den Kontxi Bilbao Cuevas andrea (Mixto-IU/EB); idazkaria den Emilio Olabarria Muñoz jauna (EAJ/PNV); batzordekideak diren Fernando Maura Barandiarán jauna (PP), M^a Teresa Rodríguez Barahona andrea (PSE/PSOE), Gema Gonzalez de Txabarri andrea (EAJ/PNV), Covadonga Solaguren andrea (EAJ/PNV), Bakartxo Tejería andrea (EAJ/PNV) eta letradua den Fco. Javier Blanco Herranz jauna.



Eusko Legebiltzarreko kideak Batzordearekin izan zuten bileran.

Informazio- eta lan-bilkura izan zuten Euskadiko EGBko arduradunekin eta langile teknikoekin. Orobat, legebiltzarkideek iritziak trukatu ahal izan zituzten Eusko Jaurlaritzaren "II. Plan Gaztea"ren gaineko txostena aztertzen ari ziren EGBko sailburuekin.

Batzordeko arduradunek kanpoaldean egin dituzten lan- eta koordinazio-bilkurari dagokienez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA BATZORDEEKIN

- **2001-06-26 – Kanaria Handiko Las Palmas. Urteko I. Topaketa.**

GAIA: Hausnarketa egin zen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen arteko lankidetzari dagokionez orain dagoen eskarmentuaz. Elkarlana eta lankidetzaz errazteko ideiak proposatu ziren.

- **2001-11-27 – Madril. Urteko II. Topaketa.**

GAIA: Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek batera egindako lanak eta proiektuak aztertu zituzten.

ARKU ATLANTIKOKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN

- **2001-03-01 – Autonomia Erkidegoko eta Europako Hego-mendebaleko frantziar eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen bilkura.**

ANTOLATZAILEA: Aragoiko EGB, Zaragozan.

BERTARATU DIRA: Aragoi, Balearrak, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Extremadura, EAE eta Madrilgo Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, eta, gainera, Erresumakoa eta Midi-Pyrénéesekoa.

GAIA: Europako hego-mendebaldea sustatzea ekonomiako eta gizarteko lankidetzako gune gisa. Eskualdeko jardule sozioekonomikoen harremanak eta, orobat, esperientzien trukea sustatzea.

- **2001-05-07 – Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen bilkura, Iruñea.**

BERTARATU DIRA: Kanarias, Ceuta, Galizia, Gaztela eta Leon, Asturias, Kantabria, EAE, Errioxa eta Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, eta, gainera, Portugalgo UGT, Bretagne, Pays de la Loire, Poitou-Charentes eta Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Arku Atlantikoko Nekazaritza Ganberetako Elkarteak, Arku Atlantikoko Frantziar Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen Koordinakundea

(Mme. Maïté Cosnard) eta Comission Arc Atlantique (M. Patrick Anvroin) izenekoa.

GAIA: Batzordeek Europako gune horretako garapen- eta lankidetz-estrategietan izan dezaketen zeregina zehaztea, batez ere INTERREG IIIB erkidegoko ekimenari dagokionez, eta, orobat, hausnarketa egitea batzorde horien artean lankidetzazko harremana ezartzeaz.

- **2001-05-07 eta 08 – Arku Atlantikoaren Urteko XXII. Batzar Nagusia**

ANTOLATZAILEA: Arku Atlantikoaren Batzordea, Iruñean

BERTARATU DIRA: Arku Atlantikoko Batzordearen Periferiako Itsas Eskualdeen Biltzarrean dauden eskualdeetako administrazio eta erakunde sozioprofesionaletako ordezkariak.

GAIA: Eskualdeentzat gaurkotasuna duten gaiak aztertzea, besteak beste INTERREG IIIB erkidegoko ekimena.

- **2001-09-20 eta 21 - Arku Atlantikoko Batzordearen Periferiako Itsas Eskualdeen Biltzarraren XXIX. Batzar Nagusia.**

ANTOLATZAILEA: Europako Periferiako Itsas Eskualdeen Biltzarra, Oporton, Portugalen.

BERTARATU DIRA: Europako Periferiako Itsas Eskualdeen Biltzarrean dauden eskualdeetako administrazio eta erakunde sozioprofesionaletako ordezkariak.

GAIA: Eskualdeentzat interes bizia duten gaiak, “Europako Batasunaren etorkizuna: kohesioak eta gobernagarritasuna” izenburupean.

- **2001-09-21 – Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta erakunde sozioprofesionalen bilkura.**

BERTARATU DIRA: Kanaria, Ceuta, EAE eta Portugaleko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Bretagne, Pays de la Loire; Poitou—Charentes, Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Comission Arc Atlantique, Arku Atlantikoko Nekazaritza Ganberako Elkartea eta Arku Atlantikoko Frantziar EGBen Koordinakundea: M. Cosnard.

GAIA: Arku Atlantikoko INTERREG III B Erkidegoko Ekimenean parte hartzea, eta bertaratutako erakunde guztiek hausnarketa egitea batera garatu beharreko lankidetz-eraketuek izan litzaketan edukiez.

- **2001-10-26 – Bilkura, “Arku Atlantikoan kabotajea biziberritzea” izenburupean.**

Urriaren 26an, Frantziako Nantes hirian (Pays de la Loire) egin zen lau azterlanen aurkezpena; Arku Atlantikoko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako bost batzordeek, Frantziako eskualdeetakoek –euren gune sozioekonomikoa sustatzeko duten lankidetz-esparruaren barruan– erraztu dituzte, eta “Faxada Atlantikoan kabotajea biziberritzea” izenburua dute.

Azterlanen helburua da fatxada atlantikoan kabotajeari bultzada berria emateko oztopo diren arazoak atzimatea eta irtenbideak azaltzea. Kabotajeak Atlantikoko itsasaldean duen agerpen txikia ikusita, bost Batzordeek bultzatzen dute fatxada atlantikoan itsas garraioa eta kabotajea sustatzea, garraio horrek abantaila handiak eskaintzen baititu bide-sarea arintzeko, espazio gutxiago betetzeko eta gutxiago kutsatzeko.

Baliabide materialen eta giza baliabideen kudeaketa

IV

Baliabide materialen eta giza baliabideen kudeaketa

AURREKONTUA, 2001

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Gastuen Aurrekontuak 2001. urterako 1.502.530,26 €-ko diru-kopurua zuen, oso-osoan EAEko Aurrekontu Nagusiaren kargura finantzaturik.

Jarraian, 2001. urteko Aurrekontua nola geratu zen aurkezten da. Bertan %82,16 inguruko betearazpen maila nabarmendu behar da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ohiko jarduera gero eta gehiago finkatu eta garatzearen ondorioz.

2001. urterako Aurrekontua hurrengo kapitulu handitan banatzen da (zenbatekoa €-tan):

	AURREKONTUA	GAUZATUA	GRADUA
GASTUAK, 2001	1.502.530,26	1.234.441,51	%82,16
I. kapitulua–Langile gastuak	540.116,92	511.272,93	
II. kapitulua–Funtzionamendu gastuak	601.445,48	506.295,24	
III. kapitulua–Finantza gastuak	601,01	0	
IV. kapitulua–Gastu Arrunten Transf. eta Sub. Partaideei egindako transferentziak	342.336,49	188.660,90	
VI. kapitulua–Inbertsioak	18.030,36	28.212,44	
SARRERAK, 2001	1.502.530,26	1.530.112,61	%101,84
Eusko Jaurlaritzaren	1.502.530,26	1.502.530,26	
Finantza-sarrerak	0	27.479,01	
Beste sarrera batzuk	0	27.479,01	

2001. urtean, egokiak diren hautatze-prozedurak egin ostean, lagun bi kontratatu dira: Azterlanen eta Proiektuen arduradun bat eta ordenantza bat.

Euskadiko EGB-ren dokumentazio eta kanpoko
komunikazio zerbitzua

V

Euskadiko EGB-ren dokumentazio eta kanpoko komunikazio zerbitzua

KORPORAZIO IRUDIA

2001. urtean, Euskadiko EGBk korporazio-irudia erakundeak ekoizten dituen ikus-elementu guztiei egokitzeko prozedura amaitu du.

2000. urtearen amaieran, logotipo berria sartu zen argitalpen eta paper guztietan; eta 2001.ean web orrialdea diseinatu zen berriro, Korporazio Irudiaren Eskuliburuak finkatutako arau estetikoekin bat etorrira. Euskadiko EGBren logotipoa web orrialdean sartu zen, eta, hala, erakundearen koloreak aldatu ziren ildo estetiko berriei jarraituta.

INTERNET-EKO WEB ORRIA

2001. urtean web orrialdean berrikuntza estetikoa egiteaz gainera, barruko egitura eta eduki batzuk aldatu ziren.

Aldaketak egindakoa, Euskadiko EGBren web orriak 70 orri ditu. Hori egiteko, ONCEREkin eta Gorren Elkartearekin aritu da koordinazio-lanetan, tankera horretako elbarritasunak dituzten lagunek ere eskuragarri izan dezaten.

Web orrialdearen egitura 8 ataletan egituratuta dago:

1. Euskadiko EGB

Erakundearen gaineko oinarrizko informazioa ematen du. Honako hau da aurkibidea:

- Zer da Euskadiko EGB?
- Historia
- Bere zereginak
- Nortzuk osatzen dute?
- Zelan antolatzen da?
- Xedapen orokorrak (izena, egoitza eta izaera)
- Osaera eta izendapena



Euskadiko EGBaren web orriaren ataria, diseinu berriarekin.

30

- Organoak eta funtzionamendua
- Ekonomia- eta finantza-araubidea
- Beste xedapen batzuk

2. Prentsa-oharrak

Komunikabideei bidalitako goiburuak sartu dira, hurrenkera kronologikoan antolatuta. Dokumentua aukeratu ostean, testu osoa deskargatu ahal da.

3. Interneten dauden beste EGB batzuk

“Link” edo loturak, Europako eta Erkidegoko beste Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde batzuetatik ibiltzeko.

Puntu horretatik, “Autonomia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen” datu-base bateratura sar daiteke, eta horrek aukera ematen du erakunde horiek egindako edozein txosten bilatzeko.

4. Irizpenak eta txostenak

Bertatik sar daiteke Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egindako irizpen guztietara.

5. Prentsa-, irrati- eta telebista-albistea

Batzordearen Prentsa eta Dokumentazio Bulegoak prentsan, irratan zein telebistan emandako eta argitaratutako sozioekonomiazko albiste guztiak informatizatu ditu bere datu-basean.

2001eko irailetik, gure bisitariak dokumentuen base hori eskuragarri dute. Gure iritziz, kontsultarako tresna erabilgarria izan daiteke, nola sailburuentzat hala komunikabideentzat edota gai horietan interesa duen beste edozein partikularrentzat. Sarbidea doan da.

6. Jardueren agenda

Erakundeak sustatzen dituen bilkuren eta osoko bilkuren egutegirako sarbidea.

7. Argitalpenak

Atal hori oraingo argitalpenetarako eta etorkizunean egingo ditugunetarako da (Oraingo, 1998, 1999 eta 2000ko jardueren memoriak sartu ditugu).

8. Memoria sozioekonomikoa

Memoria sozioekonomikoak, Batzordeak egin duen lanik adierazgarriena denez, atal oso bat du beretzat. Erabiltzaileak testuan edota diseinu osoan eskura dezake, artxibo trinkotuan. Gainera, eskabideen formularioa gaineratu da, papezko edizioa gura dutenentzat.

DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

2001. urtean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Dokumentazio Zerbitzuak aurreko urtean hasitako informatizazio-prozedurarekin jarraitu du. Horrela, bada, urte amaieran, gizaritari eta lanari buruzko albisteak batzen dituen datu-baseak prentsa idatziko **7.111** dokumentu zituen, eta, irratian eta telebistan emandako informazioei dagokienez, **46.703** dokumentu zituen. 2001eko irailetik, dokumentuen base horren sarbidea publikoa da.

LIBURUTEGIA

2001. urtearen amaieran, Batzordearen Liburutegiko dokumentu-funtsean **1.971** ale zeuden datu-basean erregistratuta. Zenbaketa horri gaineratu behar zaizkio legeztatze buletinak, jurisprudentziakoak, eta automatizatutako erregistroan sartuta ez dauden hainbat liburuxka eta aldizkari.

Liburutegiaren Kudeaketako datu-base berrian funtsak era automatikoan tratatu, eta biltegian gordetzen dira. Tresna horrekin, dokumentuak *in situ* kontsulta eta berreskura daitezke, edota, bestela, kontsulta erreferentzialak eginez BRS, Search formatuan bildutako Datu Basean, 4 erabiltzaile aldi berean izanda.

ARGITALPENAK

2001. urtean ondoko ale hauek editatu eta banatu dira:

- Jardueren Memoria 2000. Edizio elebiduna, 750 ale.
- Euskadiko EGBren zabalkuntzarako liburuxka. Edizio elebiduna, 750 ale.
- Memoria Sozio-ekonomikoa 2000. Gaztelaniako edizioa, 1.500 ale.
Euskarako edizioa, 450 ale.
- Egindako 5 irizpenen separata elebidunak. 800 ale. Guztira, 4.000 ale.



2001eko argitalpenak.

KOMUNIKABIDEEKIN IZANDAKO HARREMANAK

Euskadiko EGBaren Osoko Bilkurak irizpenak eta/edo memoriak (urtekoak eta sozioekonomikoak) onartu ostean, berehala bidaltzen zaizkio eskatu dituen erakundeari. Bigarren aldi batean, testuak inprimatzera bidaltzen dira, eta gero posta bidez zabaltzen dira. Ohiko zabalkuntzaz gainera, gure web orria eduki dugun unetik bertatik, erabaki horien edukiak sarean ipini dira, interesa duten lagunek eskuragarri izan ditzaten. Edukia, irizpenen eta memoriaren testu osoa bezala, Interneten eskura daiteke, Euskadiko EGBren “Notas de Prensa- Prentsa Oharrak” izeneko web orrialdetik.*

Zerbitzu hori aipatzeaz gainera, gaineratu behar ditugu EGBren Komunikazio-ko Bulegoak aldiaren behin egiten dituen eta komunikabideen ekonomia-arloetara bidaltzen dituen prentsa-oharrak. Dagokion irizpenaren edo memoriaren laburpen motz bat egiten da, kazetariaren lana errazte aldera, eta, aldi berean, Batzordearen altzoan egiten den lana ezagutarazte aldera.

Jarraipen berezia egiten zaio prentsara bidalitako komunikatu bakoitzari, eta azkenik ematen edo argitaratzen diren albisteak BRS datu-basean artxibatzen dira, eta eskuragarri uzten dira kontsultak egiteko.

Azken urtean, era nabarmenean igo da Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arauzoetarako Batzordearen erakunde-jarduera (kanpoko bisitak, aurkezpenak, ekimen berriak, e.a.); eta, horren ondorioz, kontaktu gehiago izan da komunikabideekin, eta horiek erakundearen jardueren, deliberazioen eta proposamenen berri eman dute.

* Osoko Bilkurak Euskadiko EGBren Komunikazio Politika berretsi zuen (2001-03-30ean), ezarrita duenaren arabera eta erakundearen barne funtzionamenduko Araudiaren 38. artikuluari jarraituta, horrek ezartzen baitu irizpenek, txostenek, proposamenek eta ebazpenek Osoko Bilkurak erabakitako publizitatea izango dutela



Euskadiko EGBk antolatutako prentsaurreko baten irudia.

VI

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari
ezarri dakioken legedia

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ezarri dakioken legedia

- 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 LEGE ORGANIKOA, Euskadiko Autonomia Estatutuarena (EAA, 306. zk. 1979ko abenduaren 22koa; EHAA, 32. zk., 1980ko urtarrilaren 12koa).
- 9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (EHAA, 141. zk., 1997ko uztailaren 24koa).
- Osoko Bilkuraren ERABAKIA, 1997ko abenduaren 18koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen funtzionamendu-araudia onartzeko dena (EHAA, 10. zk., 1998ko urtarrilaren 16koa).
- 2/2000 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa; horren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako lehengo kideak kargutik kendu eta kide berriak izendatu dira (EHAA, 58. zk., 2000 martxoaren 23koa).
- 4/2000 DEKRETUA, apirilaren 19koa; horren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Aditu Taldeko kideak izendatu dira (EHAA, 87. zk., 2000ko maiatzaren 10ekoa).
- 6/2000 DEKRETUA, ekainaren 14koa; horren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko lehendakaria izendatu da (EHAA, 117. zk., 2000ko ekainaren 21ekoa).
- 7/2000 DEKRETUA, abuztuaren 2koa; horren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide berriak izendatu dira (EHAA, 178. zk., 2000ko irailaren 15ekoa).

Eranskinak

Eranskinak

I. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren osaera.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Komisioaren osaera.

II. ERANSKINA

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak 2001. urtean egindako bilkurak.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Batzorde Iraunkorrak 2001. urtean egindako bilkurak
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lan-Batzordeek 2001. urtean egindako bilkurak

III. ERANSKINA

- Auditoretza-txostena.

IV. ERANSKINA

- Prentsa-oharrak.

I. ERANSKINA

- EUSKADIKO EGB-KO OSOKO BILKURAREN OSAERA.
- EUSKADIKO EGB-KO BATZORDE IRAUNKORRAREN OSAERA.
- EUSKADIKO EGB-KO LAN BATZORDEEN OSAERA.

**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO
BATZORDEAREN OSOKO BILKURAREN OSAERA**

Lehendakaria
Idazkari nagusia

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO
MANUEL ARANBURU OLAETXEA

A TALDEA.–Sindikatu Konfederazioek edo Erakundeek izendatuak

Eusko Langileen Alkartasuna– ELA sindikatuak proposatuta

Titularrak	Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ	AITOR ARRIZABALAGA KALTZAKORTA
BEGOÑA DÍEZ DE ULZURRUN ITURRALDE	JON ANDER LLABORI ZEARRA
GERMAN KORTABARRIA IGARTUA	IÑIGO SAGARNA ODRIUZOLA
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU	AMAIA ALDASORO ITURBE

Comisiones Obreras de Euskadi–CC.OO sindikatuak proposatuta

Titularrak	Ordezkoak
EDUARDO GARCÍA ELOSUA	ANTXON TOMASENA ALZURI
JOSE LUIS RUIZ GARCÍA	FELISA PIEDRA GAO

Langile Abertzaleen Batzordea–LAB sindikatuak proposatuta

Titularra	Ordezkoa
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	M. ^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

Unión General de Trabajadores de Euskadi – UGT sindikatuak proposatuta

Titularra	Ordezkoa
RAÚL ARZA VÉLEZ	FÉLIX PÉREZ CARRASCO

**B TALDEA.–Confederación Empresarial Vasca–Confebask
erakundeak izendatuta**

Titularrak	Ordezkoak
FELICÍSIMO AYASTUY SAENZ	(Ez da ordezkorik izendatu)
JUAN JOSE EUGUI EUGUI	JON BILBAO SARALEGUI
ENRIQUE GONZÁLEZ SAL	ARTURO GARCÍA SANZ
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO	IGNACIO SÁENZ DE GORBEA
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN	PEDRO ARROYO ORTIZ
JAIME FERNANDEZ ALCEDO	ANA GARCÍA POLANCO
MANUEL GUERRERO IGEA	JOSÉ M. ^a RUIZ URCHEGUI
JOSÉ GUILLERMO ZUBIA GUINEA	JUAN UGARTE AGUIRREZABAL

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko honako sektore, erakunde, entitate eta elkarte hauetako bakoitzak izendatuta:

Merkataritza, industria eta nabigazio ganberek

Titularra	Ordezkoa
JUAN M. ^a ZORRIQUETA AZPIAZU	JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA

Aurrezki-kutxek eta finantza erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO	IÑAKI BERISTAIN ETXABE

Kooperatibek:

Titularra	Ordezkoa
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	JAVIER SALABERRIA AMESTI

Lan-baltzu anonimoek:

Titularra	Ordezkoa
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA	JAVIER MUÑECAS HERRERAS

Arrantzako erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
MIGUEL IRIONDO AZURMENDI	AURELIO BILBAO BARANDIKA

Nekazaritzako erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
JESÚS MANUEL MARAÑÓN URIARTE	ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ

Kontsumitzaileen erakundeek:

Titularra	Ordezkoa
CELINA MENAZA ECENARRO	JON ARIÑO GALLEGO

Euskal Herriko Unibertsitateak:

Titularra	Ordezkoa
GONZALO MAESTRO BUELGA	JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

D TALDEA.–d) taldea betetzen duten sailburuak – Adituak

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	YOLANDA JUBETO RUIZ
JOSELU CERECEDA GARAIO	VÍCTOR LASKURAIN ARGARATE
M. ^a LUZ DE LA CAL BARREDO	JOAQUÍN OCHOA SARACHAGA
M. ^a CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA	JOSÉ M. ^a URANGA AYESTARAN

2001. urtean honako **ordezkapen** hauek egin ziren:

- Apirilaren 5eko 4/2001 Dekretuak xedatutakoaren arabera (EHAA, 82. zk., 2001-05-02koa), Eduardo Arechaga Cilleruelo jaunak (titular gisa) Rafael Puntonet del Río jaunaren ordez jardungo du, Confederación Empresarial Vasca-CONFEBASKen izenean.
- Urtarrilaren 26ko 1/2001 Dekretuak xedatutakoaren arabera (EHAA, 30. zk., 2001-02-12koa), María Josefa Arraiza Núñez andreak (ordezko gisa) Domingo Lorca Alcalá jaunaren ordez jardungo du, Langile Abertzaleen Batzordea-LAB sindikatuaren izenean.
- Maiatzaren 8ko 5/2001 Dekretuak xedatutakoaren arabera (EHAA, 95. zk., 2001-05-21ekoa), Eduardo García Elosua jaunak (titular gisa) Pedro J. García Fernández jaunaren ordez jardungo du, Confederación Sindical de Comisiones Obreras de Euskadi-CC.OOren izenean.

BATZORDE IRAUNKORRA

Lehendakaria	RAFAEL PUNTONET DEL RÍO
Idazkari nagusia	MANUEL ARANBURU OLAETXEA

A TALDEA.–Sindikatu konfederazioek edo erakundeek izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ	GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA	JOSÉ LUIS RUIZ
FÉLIX PÉREZ CARRASCO	RAÚL ARZA VÉLEZ
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	M. ^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

B TALDEA.–Confederación Empresarial Vasca-Confebask erakundeak aukeratuak

Titularrak	Ordezkoak
FELICÍSIMO AYASTUY SAENZ	JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO	EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:

Titularrak	Ordezkoak
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	JUAN M. ^a ZORRIQUETA AZPIAZU
GONZALO MAESTRO BUELGA	PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO

D TALDEA.–Adituak

Titularrak	Ordezkoak
JOSÉ M. ^a URANGA AYESTARÁN	VÍCTOR LASKURAIN ARGARATE
ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	YOLANDA JUBETO RUIZ

EKONOMIA GARAPENAREN AZTERKETA EGITEKO BATZORDEA

Lehendakaria

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO

A TALDEA.–Sindikatu konfederazioek edo erakundeek aukeratuak

Titularrak

JON A. LLABORI ZEARRA

ANTXON TOMASENA ALZURI

RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ

FÉLIX PÉREZ CARRASCO

Ordezkoak

AITOR ARRIZABALAGA KALTZAKORTA

EDUARDO GARCÍA ELOSUA

M.ª JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ

RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA.–Confederación Empresarial Vasca-Confebask erakundeak aukeratuak

Titularrak

EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO

JUAN JOSÉ EUGUI EUGUI

ENRIQUE GONZÁLEZ SAL

FELICÍSIMO AYASTUY SAENZ

Ordezkoak

IGNACIO SÁENZ DE GORBEA

ANA GARCÍA POLANCO

(Ez da ordezkorik izendatu)

(Ez da ordezkorik izendatu)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:

Titularrak

MIGUEL IRIONDO AZURMENDI

JESÚS MANUEL MARAÑÓN URIARTE

JAVIER MUÑECAS HERRERAS

PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO

Ordezkoak

AURELIO BILBAO BARANDIKA

ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ

JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA

IÑAKI BERISTAIN ETXABE

D TALDEA.–Adituak

Titular

JOSELU CERECEDA GARAIO

JOAQUÍN OCHOA SARACHAGA

Batzordeko Idazkari Teknikoa

ARANTZA LÓPEZ DE MUNAIN ZULUETA

Ordezkoa

ROBERTO BERMEJO GOMEZ DE SEGURA

M.ª CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA

GIZARTE GARAPENAREN AZTERKETA EGITEKO BATZORDEA

Lehendakaria
MANUEL ARANBURU OLAETXEA

A TALDEA.–Sindikatu konfederazio edo erakundeek aukeratuak

Titularrak
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU
FELISA PIEDRA GAO
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
RAÚL ARZA VÉLEZ

Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
JOSÉ LUIS RUIZ GARCÍA
M.ª JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ
FÉLIX PÉREZ CARRASCO



Gizarte Garapenaren azterketa egiteko Batzordea lanean dagoela hartutako argazkia.

B TALDEA.–Confederación Empresarial Vasca-Confebask erakundeak aukeratuak

Titularrak

MANUEL GUERRERO IGEA
ENRIQUE GONZÁLEZ SAL
FELICÍSIMO AYASTUY SAENZ

Ordezkoak

JON BILBAO SARALEGUI
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN
(Ez du ordezkorik izendatu)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:

Titularrak

GONZALO MAESTRO BUELGA
CELINA MENAZA ECENARRO
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA
JUAN M.^a ZORRIQUETA AZPIAZU

Ordezkoak

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
JON ARIÑO GALLEGO
JAVIER SALABERRIA AMESTI
JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA

D TALDEA–Adituak

Titularra

M.^a LUZ DE LA CAL BARREDO
YOLANDA JUBETO RUIZ

Batzordeko Idazkari Teknikoa

FCO. JAVIER SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA – ARANTZA UNZURRUNZAGA

MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA

Lehendakaria

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO

A TALDEA.–Sindikatu konfederazioek edo erakundeek aukeratuak

Titularrak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
ANTXON TOMASENA ALZURI
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
FÉLIX PÉREZ CARRASCO

Ordezkoak

GERMÁN KORTABARRIA IGARTUA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
M.^a JOSEFA ARRAIZA NÚÑEZ
RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA.–Confederación Empresarial Vasca-Confebask erakundeak aukeratuak

Titularrak

JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
FELICÍSIMO AYASTUY SAENZ

Ordezkoak

JUAN UGARTE AGUIRREZABAL
ARTURO GARCÍA SANZ
(Ez da ordezkorik izendatu)

C TALDEA.–Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate, elkarte bakoitzak aukeratuak:

Titularrak

CELINA MENAZA ECENARRO
JAVIER MUÑECAS HERRERAS
JUAN M.^a ZORRIQUETA AZPIAZU
IÑAKI BERISTAIN ETXABE

Ordezkoak

JON ARIÑO GALLEGO
JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA
JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA
PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO

D TALDEA.–Adituak

Titularrak

M.^a CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA
YOLANDA JUBETO RUIZ

Ordezkoak

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
M.^a LUZ DE LA CAL BARREDO

Batzordeko Idazkari Teknikoa

FCO. JAVIER SASIGAIN SAENZ DE BURUAGA

II. ERANSKINA

- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO OSOKO BILKURAK EGINDAKO BILKURAK.
- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILKURAK.
- EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO LAN-BATZORDEAK EGINDAKO BILKURAK.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO OSOKO BILKURAK 2001. URTEAN EGINDAKO BILERAK

2001eko urtarrilaren 31

- Irizpen hauek onartu dira:
 1. “Etxebizitzaren Antolamenduaren gaineko Legearen Aurreproiektua”.
 2. “Prestakuntzako txandakako praktiken programa arautzen duen Dekretu Proiektua”.
 3. “Ondoko proiektuak garatzeko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua: txeke-txertatze metodologia erabiltzen duten prestakuntzako estrategien bidez, langabezia dauden lagunak lan merkatuan sartzeko aukerak hobetzeko helburua duten proiektuak”.
- Irizpen hauek ez ematea erabaki da:
 1. “Lege Proiektua, merkataritza-jarduera antolatzen duen 7/1994 Legea aldatzeko dena”.
 2. “Dekretu Proiektua, bizitza guztirako ikasketari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen”.
 3. “Dekretu Proposamena, EQUAL ekimenaren esparruan proiektuak garatzeko laguntzak antolatzen dituen”.

2001eko otsailaren 23a

- Aho batez onartu da 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren txostena.
- Aho batez onartu da auditoretza-txostena.
- Aho batez onartu da 2001eko aurrekontuko kopuruaren barne banaketa.
- Aho batez onartu da “Uraren Euskal Administrazioa arautzen duen Lege Aurreproiektua”ri buruzko irizpena.

2001eko martxoaren 30a

- 2000ko Jardueren Txostena aho batez onartu da.
- Aho batez onartu da Euskadiko EGBren Osoko Bilkurak onartutako txostenak, memoriak eta irizpenak zabaltzeko politika berrestea.
- “EQUAL Erkidegoko Ekimenari dagozkion laguntzak jasotzeko lehen deialdia arautzen duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren Agindu Proiektua”ren gaineko irizpena onartu da.

2001eko irailaren 28a

- 2000. urteko EA Eren egoera sozioekonomikoaren gaineko memoria aho batez onartu da.
- 2002ko aurrekontuen proiektua aho batez onartu da, baina baldintza hau jarri da: taldeek IV. kapituluko partiden barne banaketari buruzko atala berariaz onartu beharko dute.
- Hurrengo Memoria Sozioekonomikoa, Batzordeak egingo duen bosgarrena, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen esparruan aurkeztuko dela iragarri da.

2001eko abenduaren 14a

- Lehendakariak adierazi du ezin dela akordiorik lortu prozedura laburtuari dagokionez, urtebetez lanean eta bilerak egiten igaro ostean.
- Batzorde Iraunkorrek erabaki du Batzordeak parte hartu ahal izatea Arku Atlantikoari buruzko lan eta proiektu guztietan.
- Akordioa lortu da berezko ekimeneko bost gaitan eta, hortaz, erakundeak horiek lantzeari ekin beharko dio.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRAK 2001. URTEAN EGINDAKO BILKURAK

2001eko urtarrilaren 16a

- Aurrekontuaren hiruhileko betearazpena azaldu da.
- Aurrekontuaren IV. kapituluko kopuruak banatzeari buruzko eztabaida hurrengo Batzorde Iraunkorrean egitea erabaki da.
- Batzorde Iraunkorreko kide batek egindako proposamena, Araudia berri-tzearen gaineko eztabaida hasteari buruzkoa, hurrengo bilerarako uztea erabaki da.
- Osoko bilkurarako deia egin da urtarrilaren 31rako.

2001eko otsailaren 7a

- 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren gaineko txostena egin da.
- Auditoretzako txostena aho batez onartu da.
- Jardueren Memoriaren onarpena hurrengo Batzorde Iraunkorrerako atzera-tzea erabaki da.
- Lehendakariak prozedura laburtuari buruzko proposamena aurkeztea eta hurrengo Batzorde Iraunkorrean eztabaidatzea erabaki da.
- Osoko bilkurarako deia egin da otsailaren 23rako.

2001eko martxoaren 14a

- 2000. urteko Jardueren Memoria aho batez onartu da.
- Gobernuak izapidetutako eta EGBren kontsultapean ezarritako Aurreproiektuen eta Proiektuen txostena aurkeztu da.
- 2000. urtean EGBk onartu dituen irizpenen araudiaren eraginari buruzko txostena aurkeztu da. .
- Eztabaidatu ostean, erabaki da lehendakariaren onarpenaren pean uztea organoaren bilkurarako deia egiteko aukera, era monografikoan prozedura laburtua ezartzeari buruz aurkeztu den proposamena eztabaidatzeko.
- 3. helburuaren Jarraipen Batzordean eta II. Gazte Planean parte hartzeari buruzko informazioa eman da eta eztabaidatu da.
- Osoko bilkurarako deia egin da martxoaren 30erako.

2001eko ekainaren 13a

- Azterlanen eta proiektuen arduradun izango den teknikaria eta ordenantza kontratatzea onartu da.
- Prozedura laburtuari buruzko txosten juridikoa kanpoko profesional bati esleitzea onartu da.
- Informazioa eman da 2002ko aurrekontuaren aurreproiektuaren zirriborroaz eta maiatzaren 31ko aurrekontuaren betearazpenaz.
- Informazioa eman da erkidegoko ekimenez, hainbat agenteen parte-hartzeaz, eta Arku Atlantikoaren esparruan egiten ari diren jardueraz.

2001eko uztailaren 20a

- Osoko Bilkuraren ohiz kanpoko bilkurarako deia egin da 2001eko irailaren 19rako edo 28rako, eta haren onarpenaren pean ezarriko da EAeko gizarte- eta ekonomia-egoeraren gaineko memoria.
- "Eskualdeen arteko lankidetzatza transnazionala Arku Atlantikoan" gaiari buruzko txostena eman da.
- II. Gazte Planaren zirriborroa eman da.
- Midi-Pyrenneés eskualdeko 12 laguneko ordezkariak batek bisita egingo duela –eskualdeko lehendakariordea buru dela– iragarri da.

2001eko irailaren 12a

- Osoko Bilkuraren ohiko bilkura 2001eko irailaren 28rako deitu da, eta bere onarpenaren pean ezarri da EAeko gizarte- eta ekonomia-egoerari buruzko memoria.
- Frantziako ordezkariak Euskadiko EGBri bisita egingo diola azaldu da.
- EAeko bosgarren memoria EHUren udako ikastaroetan aurkezteko proposamena azaldu da.

2001eko urriaren 17a

- Prozedura laburtuaren proposamena aurkeztu eta bozkatu da. Ez da onartu, eta 15 eguneko epea utzi da b) eta c) taldeek bilera egiteko eta akordiora iristeko.
- Aurrekontuaren hiruhileko betearazpenaren gaineko informazioa eman da.

2001eko azaroaren 30a

- Akordiora iritsi ez denez, prozedura laburtua etenda uztea erabaki da; etorkizunean gai horren gainean akordiora iristeko aukera hor geratu da.
- Arku Atlantikoan eskualdeen arteko lankidetzatza transnazionalari buruzko gaietan, aurreranzko jarrera hartzea erabaki da.
- Auditoretza-enpresa kontratatzea erabaki da.
- Euskadiko EGBren gaineko web orrialdea egitea erabaki da, gero eztabaidatzeko.
- Hurrengo Osoko Bilkura abenduaren 14ean egitea erabaki da. Azaldu denez, Osoko Bilkura amaitutakoan, omenaldi laburra egingo zaie 2001eko ekitaldian kargua utzi duten sailburuei.

EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO
BATZORDEKO LAN-BATZORDEEK 2001. URTEAN EGINDAKO
JARDUERAK

Ekonomia Garapeneko Batzordea

2001eko urtarrilaren 10a

- “Uraren Euskal Administrazioa arautzen duen Legearen Aurreproiektua”ren gaineko irizpenaren aurreproiektua eztabaidatzeari ekin zaio.
- Puntu eztabaidagarriak argitzeko onartu diren aldaketak eta proposamenak jasotzen dituen agiria hurrengo bilerarako aurkeztea erabaki da. Orobat, ondorioen proposamena idaztea erabaki da.
- Hirigintzako Legearen Aurreproiektuaren gaineko iritziak eta proposamenak aurkezteko epea zabaltzea erabaki da, urtarrilaren 19a bitartean.

2001eko urtarrilaren 25a

- “Uraren Euskal Administrazioa arautzen duen Legearen Aurreproiektua”ren gaineko irizpenaren aurreproiektua onartu da.

- EGB erkidegoko egiturazko politikan parte hartzeari dagokionez, lehendakariaren proposamena onartu da: Eusko Jaurlaritzako 2. helburuko gaietako arduradunen bat gonbidatzea, Batzordearen zalantzak azaltzeko eta argitze-ko.
- EGBko ordezkari bat izendatu da 3. helburuko Programa Eragilean, horrela eskatu baitu Lan Sailak.
- Otsailaren 7an bilera egingo da eztabaidatzeko, txostengile izendatzeko eta lan-egutegia planifikatzeko, "EAEko Hirigintzako Legearen Aurreproiektua"ren gaineko irizpenaren aurreproiektuari dagokionez.

2001eko otsailaren 7a

- Eztabaida egin da "EAEko Hirigintzako Legearen Aurreproiektua"ren irizpenaren aurreproiektua egingo duen txostengilea izendatzeko; eta erabaki da erabakia hartu aurretik, Etxebizitza Saileko arduradunei agertzeko eskatzea, aurreproiektuaren edukia azal eta argi dezaten.

2001eko martxoaren 5a

- Batzordearen aurrean azaldu dira Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiroko sailburu den Patxi Ormazabal jauna; Lurralde Antolamenduko sailburuordea den Miguel Angel Delgado jauna; Lurralde Antolamenduko zuzendaria den Ignacio Izeta jauna; Lurralde Antolamenduko burua den Jesús M^a Erkizia jauna; eta arduradun juridikoa den Agurtzane Zangitu andrea. Halaber, aurreproiektua idatzi duen taldeko zuzendariak azaldu dira: EHUko Administrazio Zuzenbideko katedraduna den Iñaki Lasagabaster jauna eta Antxon Agirregoitia arkitekto jauna. Gonbidatuek euren azalpenak egin dituzte eta sailburuen galderak erantzun dituzte.
- EAEko Hirigintzako Legearen Aurreproiektua egingo duen txostengilea izendatzeari ekin zaio.

2001eko apirilaren 6a

- EAEko Hirigintzako Legearen Aurreproiektuari buruzko lanak bertan behera uztea erabaki da, baita Portuen Legearen Aurreproiektuari dagozkionak ere.
- Batzordearen aurrean azaldu dira eskualdeko politikari buruzko 2. helburuko gaietako Eusko Jaurlaritzako arduradunak: Aurrekontu eta Kontrol Ekonomiko sailburuordea den Jose M^a Iruarrizaga Artaraz jauna; Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria den Félix Ayarza Palma jauna; eta Eskualdeko Politika Zerbitzuko burua den Jose Antonio Varela Alonso jauna.

Gizarteko Garapeneko Batzordea

2001eko urtarrilaren 12

- Aho batez erabaki da ez hastea “Bizitza osoan ikasten jarduteari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua”ren irizpenaren aurreproiektua eztabaidatzen.

2001eko martxoaren 9a

- Honen irizpenaren proiektua onartu da: “EQUAK erkidegoko ekimenari dagozkion laguntzak jasotzeko lehen deialdia arautzen duen Agindu Proiektua –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena–”.

2001eko maiatzaren 25a

- “Euskal Autonomia erkidegoko lan-jaiegunen 2002ko egutegi ofiziala onartzen duen Dekretu Proiektua”ren gaineko irizpenaren proiektua ez egitea erabaki da.

2001eko urriaren 26a

- Sailburuak azaldu du interesa duela eta prest dagoela “Osalan-en egituraren eta funtzionamenduaren Araudia” onartzen duen Dekretu Proiektuaren edukia azaltzeko eta eztabaidatzeko, baina, dena dela, aldi baterako prozedura hori etetea erabaki da, eta horrela jakinaraziko zaio dagokion sailari, prozedura-motako hainbat arrazoi direla bide.

2001eko abenduaren 5a

- II. Gazte Planaren zirriborroaren gaineko irizpenaren aurreproiektuari buruzko eztabaida. Gazteriako zuzendariari I. Gazte Planaren balantzea eskatzea erabaki da.

2001eko abenduaren 19a

- II. Gazte Planaren zirriborroaren gaineko irizpenaren aurreproiektua eztabaidatzen jarraitu da.

Memoria Sozio-ekonomikoaren Batzordea

2001eko otsailaren 23a

- Aurkibide orientagarria aurkeztu da, Memoriak aztertuko dituen gaien gainekoa; eta sailburuek euren orientabideak sartu dituzte.

2001eko martxoaren 14a

- Sailburuek jarraitu dute ekarpenak egiten Memoria Sozioekonomikoaren aurkibideari eta lan-metodologiari..

2001eko maiatzaren 18a

- Memoriaren lehen zirriborroa aurkeztu da, eta epea zabaldu da sailburuek horri egingo dizkioten iradokizunak aztertzeko eta eztabaidatzeko.

2001eko ekainaren 22a

- 2000ko Memoriaren lehen zirriborroari egindako iradokizunak aztertu eta eztabaidatu dira.
- Beste epe bat zabaldu da batzordeko kideek MSE-2000aren bigarren zirriborroaz dituzten oharrak Lan Batzordeko idazkariari jakinarazteko.

2001eko uztailaren 4a

- Bilkura bertan behera utzi da C taldeko sailburu bat ez baita agertu, eta ez delako iritsi bilera legez eratzeko behar den kide-kopurura.

2001eko uztailaren 17a

- 2000ko Memoriaren bigarren zirriborroari egindako iradokizunak aztertu eta eztabaidatu dira.
- Beste epe bat zabaldu da batzordeko kideek MSE-2000aren hirugarren zirriborroaz dituzten oharrak Lan Batzordeko idazkariari jakinarazteko.

2001eko irailaren 5a

- 2000ko Memoria Sozioekonomikoaren aurreproiektua onartu da.

2001eko azaroaren 7a

- Lan Batzordeko lehendakariaren proposamena aztertu da; proposamena MSE-2001 EHUren 2002ko udako ikastaroetan aurkezteari buruzkoa da.
- Lan Batzorde txiki bat eratzea proposatu da, mintegia eratzeaz ardura dadin.
- Hurrengo Lan Batzordera Eustat-eko zuzendari nagusia den Lourdes Llorens andrea gonbidatzea erabaki da.

2001eko azaroaren 16a

- Udako mintegiaren behin-behineko programa aurkeztu eta eztabaidatu da.
- Mintegira gonbidatuko diren txostengileei eta adituari dagokienez, sailburuek dituzten iradokizunak jasotzeko epea zabaldu da.
- Mintegia antolatzeaz arduratuko den batzorde txikia eratuko duten kideak onartu eta izendatu dira.

2001eko abenduaren 18a

- 2001eko Memoria Sozioekonomikoaren aurkibidea aztertu da.
- MSE 2001aren zirriborroen kronograma aztertu eta onartu da.

III. ERANSKINA

- 2001eko EKITALDI EKONOMIKOAREN AUDITORETZA TXOSTENA.

GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Auditores-Censores Junados de Cuentas de España y al número 80204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

INFORME DE AUDITORIA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONOMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2001, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2001. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requieren el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2001, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2001. Con fecha 1 de febrero de 2001 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2000, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2001 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONOMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2001, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2001, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GOMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.



Fdo.: Javier Angulo Gómez



Bilbao, 21 de febrero de 2002

IV. ERANSKINA

- 2001. URTEAN KOMUNIKABIDEEI BIDLITAKO PRENTSA OHARRAK.

Prentsa oharra

Etxebizitzaren Antolamendurako Legearen aurreproiektuaren gaineko irizpena

EUSKADIKO EGBren USTEZ AURREPROIEKTU HAU UNE EGOKIAN DATOR, DENON ONURARAKO DELAKO

Aurreproiektuaren gainean egiten dituen oharren artean, EGBk leihatila bakarra eta administrazioaren isiltasun positiboa eskatzen ditu.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak Etxebizitzaren Antolamendurako Legearen aurreproiektuaren gaineko irizpena onetsi du. Aurreproiektuak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Inguruneko Sailak Estatuaren eremuan Eraikuntzaren Antolamenduaz dagoen araudi orokorra osatu eta zabaltzeko duen asmoa erakusten du, etxebizitzarekin zerikusi zuzena duten alderdietan sakondu eta zehaztasunak emanez. Eraikuntzaren alor zabalari eta, etxebizitza erosi, alokatu zein konpontzeko bezeroak izan litezkeenez, herritar guztiei ere zuzenduta dago. Euskadiko EGBren ustez, Lege aurreproiektua denon interesekoa da, une egokian dator (Hirigintzako Legea baino lehen eztabaidatuko baita), eta ondo ikusten duen beharrezko Legea da, gainera.

Aurreproiektuaren alderdi berriak

Berrikuntza aipagarrienak dira eraikuntza prozesuan segurtasunari lotutako alderdiak sendotzen direla, udal administrazioek hirigintza eta eraikuntza prozesuetan duten eskuhartzea zehaztasun handiagoz azaltzen dela, eta eraikinei, kontserbazioko egoera orokorra ezagutzeko, aldian aldiko ikuskaritza sistematikoa nahitaezkoa egin behar zaiela ezartzen dela.

Euskadiko EGBko kideen oharrak

Euskadiko EGBk, testu honi egiten dizkion oharren artean, lehendik beste araudi batzuetan arautu diren gaien gainean ari dela dio, eta horrek juridikoki segurtasunik eza sor lezakeela. Azpimarratzen du Legearen Aurreproiektuan administrazioak zigortzeko duen ardura edo gogoia antzematen dela, EGBren ustez neurritz kanpokoa dena, lege proposameneko 45 artikuluetatik 12 horretaz ari baitira, bai lege honetan bai eraikuntzako legean ezartzen diren bermeak eta epaitegiak ere hor dauden arren.

Gainera, Euskadiko EGBk eroslearengana luzatzen ditu bermeak, Eraikinaren Liburuaren betekizunak ezarritz.

Bestalde, EGBk eskatzen du udalek beste herri administrazio batzuen aurrean ekin dezatela, sustatzaileak leihatila edo mintzakide bakarra izan dezan. Jarduera osagarri gisa, EGBk uste du administrazioaren isiltasun positiboaren irudiari bere ahalmen juridiko guztia eman beharko litzaiokeela.

Legearen aurreproiektuak ezartzen du EAEko etxebizitza eraikin guztiak ikuskatu beharko direla gehienez 10 urteko epean. Euskadiko EGBren iritziz, epe hori laburregia da, eta uste du 15 urtera luzatuko beharko litzatekeela. Pentsatzen da 15 urtean behineko ikuskaritza nahikoa dela etxebizitzak kontserbazio baldintza onetan izateko, batez ere orain arte aldian aldiko ikuskaritzarik egin ez denean.

Prensa oharra

Euskadiko EGBk irizpena eman du prestakuntzako txandakako praktiken egitaraua arautuko duen dekretuaren proiektuaren gainean

EUSKADIKO EGBk BEHAR-BEHARREZKOTZAT JOTZEN DU LAN-PRAKTIKAK SUSTATZEA, PRESTAKUNTZA AKADEMIKOAREN OSAGARRI DIRELAKO

Praktika horietan emakumezkoek parte har dezaten pizgarri bereziak ezartzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari.

Behar-beharrezkoa da lan-praktikak sustatzea, prestakuntza akademiko arautuaren eta arautu gabearen osagarri direlako. Lanik ez dutenentzat izugarri garrantzitsua da horrelako praktikak egitea, zeren eta, Euskadiko EGBren iritziz, praktikan laneratzeko gaitasuna areagotu egiten baita eta aukerak sortzen dira ekoizpen-munduarekin harremanetan hasteko, edo, zenbaitetan, galdutako harremanak berregiteko.

Euskadiko EGBk balorazio positiboa egin du Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzaren Sailak sustatutako prestakuntzako txandakako praktiken egitarauaz. Haren iritziz, egitarau horren bitartez langabeek prestakuntza hobea lortzen dute, eta, horrenbestez, lanpostua aurkitzeko aukera gehiago dute.

Euskadiko EGBk bereziki goraipatu ditu dekretu-proiektuaren alderdi hauek:

1. Enpresek aukera izango dute ikasleekin prestakuntzaren alorrean dituzten lankidetzaren harremanak bertan behera uzteko, baldin eta ikasleek behin eta berriro huts egiten badute edo jokabide okerra erakusten badute.
2. Praktikan emakumezkoek eta gizonezkoek aukera berdinak izango dituzte.
3. Praktiketarako mugak jarri dira, lehendik ezarri gabe zeudenak:
 - Praktikak astegunetan egingo dira.
 - Gehienez 6 ordu egingo dira egunean eta 30 ordu astean.
 - Hamaika hilabetetik gorako praktikaldia egin ahal izango da etenik gabe.
 - Enpresa batean aldi berean praktikak egin ditzaketan ikasleen kopurua mugatua izango da, enpresak dituen langileen kopuruaren arabera.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, azkenik, azpimarratu egin du dekretuaren testuan jaso egin behar litzatekeela praktiken kalitatea eta garapen egokia ziurtatu beharra, eta beraz, praktikak benetan eta modu eraginkorrean kon-

trolatzeko neurriak antolatu behar liratekeela. Gainera, beharrezkotzat jotzen du aukera berdintasunaren printzipioa, dekretuan aipatzen dena, eraginkortasunez betearaztea. Horretarako, EGBren ustez, pizgarri bereziak ezarri behar lirateke emakumezkoek praktketan parte har dezaten, batez ere emakumezko langileen proportzioa behar baino txikiagoa den lanbideetan. Euskadiko EGBk argitara eman duen azken memoria sozioekonomikoan bildutako datuen arabera, lan-merkatuak langile gehien eskatzen dituen arloetan, hau da, langabezi tasarik txikienak duten horietan, hala nola Metal, Elektrizitate, Ibilgailugintza eta Delineazio arloetan, praktikak egiten dituzten ikasleetatik %5 baino ez dira emakumezkoak. Euskadiko EGBk salatu egin du emakumezkoen aurkako bereizkeria hori, eta berari aurre egiteko, dekretuan ondoko neurriak jaso ditzala eskatu dio Eusko Jaurlaritzari:

- Diru-laguntzetan, enpresak ordu bakoitzeko diru gehiago kobratzea praktikak emakumezko ikasleek egiten dituztenean, behar baino emakume gutxiago ari diren lanbide eta ogibideetarako praktikak badira.
- Gehienez 25 langile dituzten enpresetan, emakumezko ikasleak lehenestea, behar baino emakume gutxiago ari diren lanbide edo ogibideetarako praktketan.
- 25 langile baino gehiago dituzten enpresetan, praktikak egiteko hautatzen diren ikasleetatik %30, gutxienez, emakumezkoak izatea.

Prensa oharra

Euskadiko EGBren irizpena, "laneratze-txekearen metodologia erabiltzen duten hezkuntza eta prestakuntza estrategien bitartez, langabezian dauden pertsonak lan merkatuan sartzeko aukerak hobetu nahi dituzten proiektuak aurrera eramateko laguntzak" arautzen dituen dekretu proiektuaren gainean

EUSKADIKO EGBk USTE DU LANERATZE-TXEKEA DELAKO KUDEATZEKO BIDE BERRITZAILEA, ERAGINKORRA ETA EGOKIA DELA ETA LAN MERKATURA SARTZEN LAGUN DEZAKEELA

Erakunde honek Eusko Jaurlaritzari ohartarazten dio dekretu honek ezartzen dituen baldintzak ahalmena murrizten diotela.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak bere iritzia eman du Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak, laneratze-txekearen metodologia erabiltzen duten hezkuntza estrategien bitartez langabezian dauden pertsonak lan merkatuan sartzeko aukerak hobetzeko proiektuak aurrera eramateko laguntzak arautzeko erabili nahi duen dekretu proiektuaren gainean.

Dekretu proiektu honen jatorria Enpleguaren aldeko Erakundearen arteko 2000-2003 tarterako Planean dago, non Eusko Jaurlaritzari zein Foru Aldundiei finantzatzeko eskatzen zaizkien hezkuntza ekintzak kudeatzeko modu berriak, desberdinak zein osagarriak, aurrera eramatea aurreikusten baita.

Euskadiko EGBk uste du dekretu proiektuaren oinarrian dagoen ideia egokia dela, langabezian dauden pertsonen lan merkaturako bidea erraz diezaieketen hezkuntza aukera desberdinak ezagutzea, egoki irizten dieten ikastaroak hautatzeko bidea, nahi dituzten ikastaroak eginez lanerako beren bidea kudeatzea, eta ikastaro eta prestakuntza horien nondik-norakoak zehaztea eta prestakuntza hori finantza dakien eskaintzen dien aldetik (laneratze-txekeak aktibatuz doa laneratzeko orientazio, informazio eta lan eskarmentuen zerbitzu desberdinak kontsumituz doazen heinean).

Aurrera eraman ahal izateko, nahitaezkoa da erakunde sustatzaile bat izatea (Herri Administrazioa), laneratze-txekeak luzatu eta zerbitzu-hornitzaileak diren erakundeak homologatuko dituen.

Hala ere, EGBren ustez, aitzinsolasean langabezian dauden pertsonentzako laguntzen sistema dela ondorioztatzen den arren, praktikan Dekretuaren artikulua irakurriz ematen du Dekretu honetako laguntzen hartzaileak Foru Aldundiak direla. Artikuluen orientazio horrek nolabaiteko nahastea sortzen du –EGBren iriziz- aitzinsolasean aipatzen den gizabanakoen ekimenari dagokionez, gizabanakoen ekimenaren eragina murrizten den heinean, bakoitzari dagokion Aldundia baita laguntzak eskatzen dituen eta horrek prozesua erakundearen oso menpe jartzen baitu.

Prentsa oharra

Uraren politika eta banaketa araupetu duen legearen aurreproiektua berrikusi dezala gomendatu dio Euskadiko EEGABak Eusko Jaurlaritzari

EAE OSOAN URAREN PREZIOA FINKATZEKO POLITIKA BERA ERABILI BEHAR DELA USTE DU EUSKADIKO EEGABak.

Baliabideak zentzuz erabiltzeko kudeaketa garatu dezala eskatu dio Administrazioari, ez dadila dirua biltzeko neurriak sartzen bakarrik mugatu.

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uraren prezioa finkatzeko politika bakarra egin dadila proposatu du. Helburua EAeko uraren kudeaketa ekonomikoa uraren marko zuzentarauak emandako aginduei egokitzea da. Zuzentarau horiek gehienez ere 2010 urterako jada ezarrita egon behar dute. Erkidegoko zuzentarau horren arabera, uraren prezioa finkatzean kontuan hartu beharko da, urarekin erlazionatutako zerbitzuen kostuak berreskuratu egin behar direla, ingurumenak eta baliabideak sortzen dituzten kostuak barne. Hori eginez gero, erakunde erkideek behar dituzten azpiegitura hidraulikoak eraikitzeko eta azpiegitura horiek ustiatu, mantendu eta birjartzeko behar dituzten baliabideak izango lituzkete eta baita bete beharreko ingurumen neurriak betetzeko baliabideak ere. Hori guztia inolako kanonik ezarri gabe (saneamendurako eta arazteko egin behar

diren obrak finantzatzeko behar diren baliabideak lortzeko azpiegitura hidraulikoen kanona proiektatu du Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako aurreproiektuan) eta gaur egun ura dela eta, ordaintzen diren zergak, tasa eta Udaleko tasen arteko desberdintasuna kenduz, gaur egun zenbait Udalerriren artean oso desberdinak baitira zerga eta tasa horiek.

EEGABren ustez beraz, argi dago aurreproiektuaren arlo hori aldatu egin behar dela, "EAE osorako tarifa politikoa ezarri behar da. Erkidegoko arau berriaren ildoari jarraituz, irizpideak batu eta uraren politika bakarra sortu behar da".

EEGABren ustez, kontsumitzaileek baliabide horrek benetan duen balioaz kontura daitezen, garrantzitsua izango da administrazioak zein estrategia jarraitzen duen soma dezatela. "Horrela egin ezean, baliabide urri hori ez da behar den bezala kudeatuko eta egingo den politika dirua biltzea helburu duen politika baino ez da izango, zerga oinarri gisa uraren kontsumoa hartzen duen politika. Administrazioak ezin du pentsatu – *horrela dio Euskadiko EEGABeko irizpenak* – baliabide hori mugagabea dela eta bere betebeharrak bakarrik ez da baliabidea kudeatzea baliabide horren horniketa finantzatzeko dirua biltzea baino".

Horrela ba, baliabide hori zentzuz kudeatzeko uraren politika garatu behar dela uste du EEGABak. Horretarako gure inguruan dauden joerak eta gaiaren inguruan dauden ikuskerak kontuan hartu beharko dira eta ez da mugatu beharko azpiegitura hidraulikoak hornitzera.

Uraren euskal administrazioaren egiturari dagokionez, EEGABren ustez, administrazio egokia lortzeko erakundearen arteko koordinazio eta lankidetzaren bultzatu beharko litzateke, horrela uraren inguruan egin beharreko jardueren arduraren ez litzateke erakunde bakar baten eskuetan egongo. Gainera administrazio egiturak erraztu beharko litzateke eta dauden baliabideak hobeto erabili. Dena den, EEGABren ustez, aurreproiektuan proposatu duten diseinuaren muina, neurri handi batean, Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duten konpromisoan eta uren arloan duten eskumena URA erakunde autonomiadunari eskuordetzean oinarrituta dago. EEGABaren ustez, eredu horri bideragarritasun, egonkortasun eta iraunkortasun gehiago emateko Lurralde Historikoen Legea aldatu beharko litzateke, horrela L.Hek uren arloan dituzten eskumenak erakunde erkideei eratziki ahal izateko.

Prentsa oharra

Euskadiko EGBren aldeko irizpena, Europar Batasuneko Equal Ekimenaren diru laguntzei EAEn eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Agindu Proiektuaren gainean

EUSKADIKO EGBk EGOKI IRIZTEN DIO EUROPAKO GIZARTE FONDOAK ETA EUSKO JAURLARITZAK BATERA FINANTZATZEN DUTEN ETA LAN MERKATUKO BEREIZKERIAREN AURKAKO BORROKA ESTRATEGIAREN BARRUAN SARTZEN DEN EQUAL EKIMENAREN GAINEKO AGINDU HAU IZAPIDETZEARI

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren Osoko Bilkurak oniritzia eman dio Europar Batasuneko Equal Ekimenaren diru laguntzei Euskadiko Autonomia Erkidegoan eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Agindu Proiektuari. Agindu horrek Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez onartuko dituen eta Europako Gizarte Fondoaren EGBren Espainiarako Unitate Administratzailearen Deialdiaren esparruko laguntzei eusteko aukera eskaintzen duten laguntzak emateko baldintzak eta oinarriak ezartzen ditu, lan merkatuan izaten diren edozein motatako bereizkeria eta desberdintasunen aurka borrokatzeko metodo berriak sustatzen dituzten proiektuak garatzeko, Equal ekimenaren 2001-2004ko deialdiaren esparruan.

Euskadiko EGBk ondo ikusten du Eusko Jaurlaritzak EAetik aurkezten diren proiektuak kofinantzatzea, zeren lan merkatuaren funtzionamendua hobetzeko eta izaten omen diren desorekak (arrazaz, jatorri etniko, sexu, erlijio, sinesmen, ahalmen urritasun, adin zein sexu joeren arabera) ezabatzen edo, gutxienez, murrizten laguntzeko helburu baliagarriak lortu nahi baitira, ekonomia eta gizarte mailako ongizatea areagotzen lagunduz.

Hala ere, Euskadiko EGBk uste du kofinantzaketa hori, gutxienez prestakuntzako ekimenez ari denean HOBETUZen barruan gauzatu behar dela, bera baita EAEn etengabeko prestakuntzari dagokiona kudeatzeaz arduratzen dena.

Irizpen hori aho batez onartu da, eta boto partikularra du, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko ordezkariak egindakoa.

Prensa oharra

Dominikar Errepublikako erakundeen eta enpresen ordezkariak bat Euskadira etorri da

DOMINIKAR ERREPUBLIKAKO LAN MINISTROAK BISITA EGIN DIO EUSKADIKO EGB-RI, BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDU EREDUAREKIN INTERESA DU-ETA

Dominikar Errepublikako Lan ministroa, Milton Ray Guevara jauna, CONFEBASK Euskal patronalak gonbidatuta Euskadi bisitatzen ari den erakunde-ordezkaritzaren buru da. Lan-ministroarekin batera, Dominikar Errepublikako Patroien Konfederazioa den Copardom-eko arduradunak, Fabio Herrera Roa jauna (lehendakaria), Aquiles Rodríguez jauna (idazkari nagusia) eta Juan Miguel Grisolia jauna (zuzendaria) izan dira.

Dominikar ordezkariak interes handia erakutsi du gure erkidegoan dauden gizarte-partaidetzako erakundeen izaeraz eta funtzionamenduaz. Hain zuzen, Dominikar Gobernuak Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortzeko Legea egiten dihardu, eta auki eztabaidatuko da Nazioko Biltzarrean.

Erakundeekin eta enpresekin kontaktuak izateaz gainera, Laneko ministroak eskarmentuak eta iritziak trukatu ditu Euskadiko EGBko lehendakaria den Rafael Puntonet-ekin eta idazkari nagusia den Manuel Aranbururekin.

Euskadiko EGBko lehendakariak zehaztasun osoz aurkeztu du erakundea, bere osaera eta bere zereginak. Izan ere, dominikar ordezkariak argibide horiek eskatu dizkio, Euskadiko EGB baitute erreferentziatzat aipatu dugun errepublikako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortzeko Legea egiteko garaian.

Orobat, Dominikar Errepublikako ministerioen eta erakundeen ordezkariak HOBETUZ, SPRI eta CONFEBASK-en egoitzetan izan da. Era berean, bilerak izan ditu Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin eta Juan José Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin.

Prensa oharra

Euskadiko EEGABek EAEko 2000ko Egoera Sozioekonomikoari buruzko Memoria aurkeztuko du gaur

EEGABek TELEFONO KOSTUAK MURRIZTEA GOMENDATZEN DU, INFORMAZIOAREN GIZARTEA GARATZEKO

Murrizte horren ondorioz, IKTak gehiago garatuko dira.

EEGABen Memoria Sozioekonomikoak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) gure Erkidegoan duten ezarkuntzaren egoera aztertu du lehenengoz.

Datuetan adierazten denez, EAEko etxeetan teknologi hornidurak gorakada nabaria izan du azken urtean (etxeetako PCen eta Interneten sartzeko puntuen parkeak gorakada handia izan du; sakelako telefonoen kopurua ere ia bikoiztu egin da).

Ordenagailuei eta beste hornidura batzuei dagokionez, EAE Europako oraingo batez bestekoaren azpitik dago. Interneten aldetik, Estatuko batez bestekoa gainditu dugu, baina oraindik ere alde handia dugu herrialderik aurreratuenekin.

Interneten erabilerak lotura zuzena dauka telefonoaren kostuekin, eta horiek Europako batez bestekoak baino handiagoak dira. **EEGABen ustez, Interneten ibiltzeko kostuak murriztea ezinbestekoa da Informazioaren Gizartea garatzeko.**

Horri dagokionez, Administrazioari adorea ematen zaio gure Erkidegoan informazioaren gizartea hedatzen laguntzeko programekin jarrai dezan; gainera, "heziketarik urrienerako pertsonak, langabetuak, aktibo ez daudenak eta adinekoak ezin dira prozesu horretatik kanpo gelditu".

Merkataritza elektronikoari dagokionez, EAE ez da beste autonomi erkidego batzuen mailara iristen eta oso urrun dago Europako batez bestekotik. 2000. urtean, EAEko erabiltzaileen %10ek baino ez zuten bide hori erabiltzen erosketak egiteko.

IKTetan oinarrituriko zerbitzuen eskaintzari dagokionez, EAEko enpresen artean, 2000. urtean Merkataritza Elektronikoa bolumena %0,4 izan da, urte horretan egin diren salmenta guztiei dagokionez; kopuru hori oso txikia da, aurreko urtekoa baino bi aldiz handiagoa izan arren.

EEGABek ekintza zehatzak martxan jartzeko proposamena egiten du, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak sustatzeko, batik bat enpresa txikienei begira.

EEGABek Komunikazioko azpiegituretako inbertsioak handitzea proposatzen du, komunikazioetan eta datuen transmisioan gaitasun eta azkartasun handiagoa edukitzeko.

EEGABek egindako ikerketaren arabera, arlo horretako hazkundeak eta IKTak apurka-apurka arlo tradizionaletan aplikatzeak, zuzen edo zeharka, enplegua sortzeko jarraibide berriak sortuko ditu, eta aldi berean, beste enplegu modu batzuk

desagertu egingo dira epe ertainean edo luzean. Horri dagokionez, aditzera ematen da epe laburrean dagoen arazo nagusienetarikoa bat, izan ere, merkatu berri horien garapen azkarrak sorturiko eskaintza betetzeko profesional nahikorik ez egotea dela. Programatzaileen, telekomunikazioetako injineruen, ordenagailuetako teknikarien eta abarren eskari gero eta handiagoa dago; EAEko hezkuntza sistema, berriz, ez da eskari horiei berehalako erantzunik emateko gauza. **EEGABen ustez, IKT berrietako adituen defizita murrizteko, behar bezalako prestakuntza duten pertsonen heziketari arreta berezia jarri behar zaio.** Horri dagokionez, teknikari ertainak trebatu eta lanbide heziketaren nahiz maila ertainaren zeregina indartu behar da.

EEGABen urteroko memorian talde horren egoera aztertu da lehenengoz

ELBARRITASUNA DUTEN PERTSONEN LANGABEZI TASA BATEZ BESTEKOA BAINO BI ALDIZ HANDIAGOA DA

2000. urtean foru aldundiek 91.653 minusbaliatu zenbatu zituzten. Elbarrientzako kontratazio modalitate guztiek gorakada handia izan dute azken urteotan. Hala eta guztiz ere, **elbarritasuna duten pertsonen arteko langabezi tasa bi aldiz handiagoa da langabezi tasa orokorra baino.**

EEGABen ustez, laguntzarako arautegiak eta programak berez ez dira nahiko talde horren integrazio osoa lortzeko, eta beharrezkoa da aipaturiko integrazio helburuen betetze mailaren jarraipen zorrotza egitea.

EAEko 2000ko Memoria Sozioekonomikoan jasotako beste alderdi batzuk.

Ondoren, oharrrik garrantzitsuenak laburbilduko ditugu:

- **2000ko EGOERA EKONOMIKOA.**

EAEko ekonomiak aurreko urteko erritmoari eutsi zion 2000. urtean. BPGaren hazkundera %5,3koa izan zen (Estatuko batez bestekoa baino %1,2 handiagoa eta Europakoa baino %2 handiagoa).

Hazkunde hori eragin zuten faktoreak esportazioa eta enpresa-inbertsioa izan ziren, eskariari dagokionez; eta Eraikuntzaren zein Industriaren bilakaera bikaina, eskaintzari dagokionez.

Balorazioa ona izan arren, EEGABek dioenez, inflazioaren gorakadak arriskuan jartzen du hazkunde ekonomikoaren iraunkortasuna.

EAEko KPIak 7 hamarrenetako igoera izan zuen, aurreko urteko batez bestekoari dagokionez, eta urtea %3,8an amaitu zuen.

Europako prezioen batez bestekoari dagokionez, bestalde, 1,7 puntuko aldea egon da, indize harmonizatuaren bidez neurtuta.

Inflazioaren eta interes tasek gora egitearen eraginez, familiek kontsumorako joera txikiagoa izan dute.

- **ENPLEGUA ETA HEZIKETA**

Oro har, 2000ko datuak onak izan dira, **Lan Merkatuari** dagokionez.

Estatistiketan, okupazioan beste maximo bat ikusten da, nahiz eta iturriaren arabera emaitzak desberdinak izan. Esate baterako, Eustaten PRA inkestak emandako datuen arabera, okupazioak 9.892 pertsonako gehikuntza izan du (aurreko urtean baino %1,2 gehiago), eta enpleguaren batez besteko tasa 823.304 pertsonakoa da; Eustaten Kontu Ekonomikoetan jasotakoaren arabera, aldiz, okupazioaren gehikuntza 30.682 pertsonakoa izan da (%3,8) eta horrenbestez, batez besteko enplegua 842.104 pertsonakoa izan da.

Langabetu kopuruari dagokionez, langabeziak 118.400 pertsonako urripena izan du (langabezi tasaren urteko batez bestekoa %13,7koa izan da, eta Europako batez bestekoa, berriz, %8,7koa). Gizonen langabezi tasa %9,5ekoa da eta emakumeena %19,9koa.

EEGABek enpresa eta gizarte eragileekin lankidetzat handiagoa edukitzeko eskatu die hezkuntzaren eta lanaren arloko agintariei. Era berean, zenbait neurri hartzeko eskatu du, emakumeen sarrera modu eraginkorrean sustatzeko haien ordezkari-tzarik txikiena duten lanbideetan.

- **LANEKO OSASUNA**

2000. urtean laneko istripu larriak aurreko urtean baino gutxiago izan dira. Hain zuzen ere, %5,6ko jaitsiera izan dute. Hildakoren bat izandako Istripuak 85 izan dira, 1999an baino bost gutxiago. Istripu arinek, aldiz, %10eko igoera izan dute.

Ezbehar-kopuru hori murrizteko, **EEGABek programen eta ekintzen arteko koordinazio handiagoa eskatu die ekonomi eta gizarte eragileei; halaber, prestakuntzan eta segurtasunean inbertsio gehiago egiteko ere eskatu du.** Azkenik, Administrazioari ikuskapen lanetan ahalegin handiagoa eskatu dio.

- **ARLO PUBLIKOA**

Arlo Publikoaren bilakaera orokorrean, Jaurlaritzari eta Aldundiei dagokienez, egoera ekonomiko orokorrari eutsi zaio; diru-sarrera handiagoak egon eta zorrak murriztu egin dira.

Hala eta guztiz ere, enpresa publikoen galeren bolumenak gorantz jarraitu du. EEGABen azken datuetan ikusten denez (1999ko datuak), %2,5eko igoera egon da, harik eta 23.000 milioi pezetako kopurura iritsi arte. Kopuru horretatik ia 12.000 milioi EITBrenak dira, horren galerek %14ko igoera izan baitute.

• **ETXEBIZITZA**

Etxebizitzen merkatuak nolabaiteko ahultzea izan du, aurreko urteetan eskariak izandako hedapen handiari dagokionez.

Egoera hori ikusita, EAEko EEGAB kezkaturik dago, etxebizitzen prezioek izandako gorakada handiaren ondorioz (%22ko gorakada etxebizitza berrietan). Horrela, etxebizitza berrien batez besteko prezioa 32 milioi pezetatik gorakoa izan da.

Arlo horretan kezkaturik egoteko beste arrazoiatariko bat, beste alde batetik, alokairuko etxebizitzen prezioek izandako gorakada da (batez bestekoak hileroko 100.000 pezetak gainditu ditu, lehenengoz). Alokairuko etxebizitzen eskaintzak behera egin zuen urtean zehar. EEGABen iritziz, Administrazioak hutsik dauden etxebizitzetan esku hartu beharra dauka, egoera hori apur bat arintzeko.

Etxebizitza berriaren eskaintzak izandako hazkunde urria eta horren prezio handiak estu lotuta daude lurzoruaren urritasunarekin. Administrazioak erantzukizun handia dauka horretan (udalen finantzaketaren zati garrantzitsua da). EEGABen ustez, gure udalerrietako finantzabideak berrikusi egin behar dira, eta Jaurlearitzak nahiz aldundiek arazo hori konpondu beharra dute, zerga-erantzukizun nabaria baitute.

• **GIZARTE BABESA ETA BAZTERKERIA**

Aspalditik ikusten denez, EAEn eta Europako gainerako herrietan alde handia dago gizarte gastuaren eta horren estaldura mailen artean. EBan BPGaren %29 erabiltzen da horretarako, eta EAEn kopuru hori ez da %22ra iristen.

Oro har, Administrazioak arlo horretara bideratzen dituen baliabideen kopuruak gora egin du. Hala eta guztiz ere, EEGABek dioenez, arreta handia jarri behar zaio laguntza mailako prestazioen murrizketari.

EEGABek egiaztaturikoaren arabera, biztanleria gero eta zaharrago izateari eta familien egitura aldatzeari (kide bakarreko famili kopuruaren gorakada) loturiko beharrianak gero eta handiagoak dira, eta pobrezia eta gizarte bazterkeriako egoerarik gehienak talde horietan biltzen dira.

Azkenik, **EEGAB kezkaturik dago EAE osoan etorkinak integratzeko eta horiei laguntza emateko politika eraginkorrik ez dagoelako. EEGABen iritziz, gizarteko gertaera berri horri erantzun egokia eta zabala eman behar zaio.**

Prentsa oharra

Ateak zabaltzeko egunak Eusko Legebiltzarreko taldeekin

EUSKO LEGEBILTZARREKO LAN ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA EUSKADIKO EGB-RI BISITA EGIN DIO, ETA HORKO ARDURADUNEKIN ETA GIZARTEKO AGENTEKIN BATU DA

Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Bilbon duen egoitzara joan da gaur eta erakunde-bisita egin du. Legebiltzarreko Batzordeko lehendakaria den Nekane Alzelairekin batera (EA), Kontxi Bilbao (IU), Emilio Olabarria (EAJ), Covadonga Solaguren (EAJ) Gema G. de Txabarri (EAJ), Bakartxo Tejeria (EAJ), Fernando Maura (PP) eta M^a Teresa Rodríguez de Barahona (PSE) Legebiltzarreko kideak eta Batzordeko letratua den Javier Blanco azaldu dira.

Euskadiko EGBko lehendakaria den Rafael Puntonetek legebiltzarkideekin izandako lan-bilera hori zuzendu du, eta zehatz-mehatz azaldu die erakundearen funtzionamendua, erakundea eratzten duten lan-batzordeak, erakundearen barruko eta kanpoko zerbitzuak, eta egiten ari diren proiektuak (berezko ekimeneko txostenak, Arku Atlantikoko bileran partehartze eraginkorra, EGBren Memoria Sozioekonomikoaren aurkezpena EHUren udako ikastaroetan...). Eusko legebiltzarkideek zuzenean jakin ahal izan dute aholkularitza-erakunde horrek elkarriketa bultzatzeko eta Batzordean ordezkariak izan dituzten gizarte-agenteen arteko itunak sustatzeko egiten diharduen ahalegina.

Euskadiko EGB egun hauetan ari da II. Gazte Plana eztabaidatzen.

Eusko legebiltzarkideek iritzia trukatu ahal izan dituzte ELA, CCOO, UGT, LAB, CONFEBASK, MERKATARITZA GANBERA, KOOPERATIBA, EHU eta ADITUAK-eko sailburuekin eta, orobat, Euskadiko EGBko idazkari nagusiarekin; gaur lan-bilera izan baitute, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak idatzi eta bultzatu duen II. Gazte Planari dagokion irizpena eztabaidatzeko helburuarekin.

Legebiltzarreko talde guztiek esker ona erakutsi dute, ekimen horri esker erakundea eta hark egiten dituen lanak hurretik ezagutu ahal izan dituztelako.